

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Gazteria

2020an gazteei zuzendutako proiektu edo zerbitzuak bideratzeko dirulaguntzak emateko Vitoria-Gasteizko Udalaren deialdi publikoa arautuko duten berariazko oinarriak

2020ko otsailaren 14an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020an gazteei zuzendutako proiektu edo zerbitzuak bideratzeko dirulaguntzak emateko deialdi publikoa eta hori arautzeko berariazko oinarriak.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza-ren 4.4 artikuluan xedatutakoaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 17an

Gazteria Zerbitzuko burua
OSKAR FERNÁNDEZ JARAS

2020an gazteei zuzendutako proiektu edo zerbitzuak bideratzeko dirulaguntzak emateko Vitoria-Gasteizko Udalaren deialdi publikoa arautuko duten berariazko oinarriak

1. ildo. Gazteria

2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak. 2019ko abenduaren 23ko ALHAOn —147. zenbakia— argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke —www.vitoria-gasteiz.org—, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Deialdira aurkeztu nahi duten entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute honako hauen in-gurukoak jakiteko: eskabideak aurkezteko modua eta epea; entitate eskatzaileen betebeharrak eta obligazioak; dirulaguntzak justifikatzeko modua; formularioak (eranskinak); dirulaguntzaren publikitateak; azpikontratazioak; programaren aldakuntzak; beste dirulaguntza batzuekiko bate-ragarritasuna; arau-hausteak eta zigorrak; interpretazioa eta aplikatzekoa den araudia, eta abar.

1. Dirulaguntzen ildo

Gazteei zuzendutako proiektuak edo zerbitzuak.

2. Deialdiaren xedea

2.1. 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean bideratzen diren proiektuak antolatu eta gauzatzetik sortzen diren gastuak ordaintzen laguntzea da deialdi honen xedea, proiektu horien funtsezko helburua delarik gizarteratze aktibo eta parte-hartzailea ahalbidetzen dieten alternatiba eta baliabide espezifikoak eskaintzea gazteei, ondoren zehazten diren baldintza eta betebeharrak aintzat harturik.

2.2. Ez dira deialdi honen xede izango:

- a) Eskabidea egiten duen entitateko bazkideentzat bakarrik diren proiektuak.
- b) Beste udal sail edo erakunderen baten nahiz bestelako erakunderen baten berariazko deialdiaren xede diren proiektuak.
- c) Helburu nagusia aisialdi-, hezkuntza-, gizarte-, kirol- edo erlijio-jardueren edo besteren urteko eskaintza edo programazioa duten proiektuak.
- d) Irabazi-asmorik gabeko entitateen azpiegitura eta lokalak mantentzeko laguntzak, eta entitateen zabalkunde-tresnetarako direnak.

2.3. Bai elkarteen proiektuak, bai elkarteen artekoak sustatzea da deialdi honen xedea —be-reziki 14 urtetik 30era bitarteko gazteei zuzenduak—, hartara gazteek gazteria-politikan parte har dezatela lortzeko.

3. Baliabide ekonomikoak

Deialdi honen haritik ematen diren laguntzak Gazteria Zerbitzuaren 2020ko ekitaldiko aurre-kontuko 2020/0116 2371 48935 partidako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira —gehienez 35.000,00 eurokoa da horren zuzkidura—.

4. Eskatzaileak

4.1. Gazteei zuzendutako proiektu edo zerbitzuak sortzen dituzten irabazi-asmorik gabeko entitateek parte hartu ahal izango dute deialdi honetan, Vitoria-Gasteizko udalerrriaren esparruan dihardutelarik eta legez eraberrita eta Eusko Jaurlaritzaren Elkarte eta Entitateen Erregistro Nagusian edo dagokion erregistro publikoan erregistratuta daudelarik —eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean—.

4.2. Berariaz baztertzen dira laguntza-deialdi honetatik Estatuaren edo autonomia-erkide-goko administrazioaren menpeko zentro eta zerbitzuak, baita aurrezki-entitate eta irabazizko entitateen menpeak ere. Ikus, halaber, oinarri orokorretan ezarritakoa.

5. Dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak

5.1. Ondoren azaltzen diren proiektuak dira deialdi honen xede:

- a) Elkarteetako gazteen ekoizpen eta lanak komunitateari ezagutzera emateko proiektuak.
- b) Gazteei zuzendutako programa eta zerbitzuen garapenean horien protagonismoa sustatzen duten proiektuak.
- c) Hirian gazteak ikustaraztea eta haien presentzia aktiboa sustatzen duten proiektuak.
- d) Gazteen artean —gizartearen eraikuntzan eskubide osoko subjektu diren aldetik— prestakuntza eta herritartasun aktiboa sustatzen duten proiektuak.
- e) Gazteek elkarteetan parte hartzea eta boluntario izatea sustatzen duten proiektuak.
- f) Gazteen eta gizarteko beste sektore batzuen arteko informazioa, hausnarketa, eztabaida eta elkarrizketa sustatzen duten proiektuak —kulturen arteko eta belaunaldien arteko proiektuak—, gazteen prestakuntza integralerako interesgarri diren arloetan.
- g) Gazteen artean, gizonezko nahiz emakumezko izan, etxeko ardurak banatzea sustatzen duten proiektuak, eta, halaber, talde-dinamiketan gizonezko nahiz emakumezkoen artean ardurak banatzea.
- h) Gazteen partaidetza soziala bultzatzen duten proiektuak.

6. Eskabideak eta dokumentazioa

6.1. Aurkezteko epea:

Hogei egun naturalekoa izango da eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea, deialdi honen laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea.

6.2. Informazioa eta dokumentazioa:

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean egongo da eskuragarri (www.vitoria-gasteiz.org), baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere, ordutegi ofizialaren barruan.

Gazteria Zerbitzuak argibideak eta aholkularitza eskainiko dizkie deialdi honen barruan dirulaguntza eskatu nahi duten elkarreei. 945 161616 telefonora deituz —6511 luzapena— edo coordinatl@vitoria-gasteiz.org helbidera idatziz egin ahalko dira kontsultak.

6.3. Tramitazioa:

Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahalko dira, herritarrei laguntzeko bulegoetan, edo Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>; orobat aurkeztu ahalko dira legez aurreikusitako gainerako moduetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Eskabidearekin batera, oinarri hauetan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira.

6.4. Dokumentazio hau aurkeztu beharko dute deialdi honetan parte hartu nahi duten elkarreek:

- a) Eskabide-orri orokorra (1. eranskina).
- b) Proiektua aurkezteko formularioa (2. eranskina).
- c) Eskabidea izenpetzen duenaren ordezkaritza-ahalmena egiaztatzen duen agiria eta elkarrearen lege-ordezkaria den pertsona fisikoaren nortasun-agiriaren fotokopia.
- d) Identifikazio fiskalerako txartelaren fotokopia.

Zigilatuta eta eskabidea egiten duen edo esleipendun izango den elkarteko lehendakariak sinatuta aurkeztu beharko dira eranskinak.

7. Balioespen-irizpideak

Irizpide hauek hartuko ditu aintzat Vitoria-Gasteizko Udalak eskabidea egiten duten entitateei dirulaguntza eman ala ez erabakitzeko nahiz lehentasunak finkatzeko:

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
Proiektuak deialdiaren helburuekin bat datozen	15
Metodologia eta antolakuntza	15
Bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa	10
Proiektua bistaratzeko plana: proiektuaren komunikazio eta zabalkunderako metodologia, bitartekoak eta baliabideak	10
Proiektuaren berritasuna eta sormena	10
Ebaluazioa	10
Hartzaileei dagozkien alderdiak:	
Parte hartzen duten gazteen kopurua	5
Ahultasun-egoeran daudenei zuzendutako jarduerak	5
Emakumeak ahalduntzera berariaz zuzendutako jarduerak	5
Elkarte-sarea:	
Proiektua sarean aurkezten da, hainbat elkarteren artean	5
Euskararen erabilera:	
Euskaraz egitea aurreikusten den jarduerak	6
Euskarak entitatearen irudian —webgunea, sare sozialak, irudi korporatiboa...— eta funtzionamenduan eta antolakuntzan duen lekua	4
Guztira gehienez lor daitezkeen puntuak	100

Dirulaguntza jasoko badute, gehieneko puntuazioaren ehuneko 50 lortu beharko dute aurkezten diren proiektuek gutxienez, aurreko irizpideen arabera.

8. Dirulaguntzak emateko prozedura, eta zenbatekoa

8.1. Dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan hiru mila (3.000,00) eurotik gorakoa proiektu bakoitzeko —atal honetako 4. puntuaren ildotik onesten den aurrekontuaren ehuneko 100era arte finantzatu ahal izango da—.

8.2. Entitate esleipendun bakoitzak ezingo du bi dirulaguntza baino gehiago jaso.

8.3. Aurrekontua onesteko irizpide hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

a) Jarduera edo proiektua garatzeko inolako zalantzarik gabe behar direnak joko dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuek nahitaez 2020an eginak izan beharko dute, eta eskuratze-kostuak inolaz ere ezingo dira izan merkatuko baliotik gorakoak.

b) Elkartearen menpeko langileen ordainsarien gastuei dagokienez, proiektuan jasotzen diren jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren langile espezializatuen ordainsariak baino ez dira joko dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat.

c) Ezingo da diruz lagundu daitekeen gastutzat jo BEZ kengarriaren zenbatekoa, baldin eta eskatzailea zerga horren aitortpena egitera behartuta badago.

d) Ezingo dira gastutzat sartu elkarte eskatzaileen azpiegiturekin, inbertsio-gastuekin edo lokalak mantentzeko lanekin zerikusia dutenak.

e) Ezingo dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat sartu informatika-materiala edo ekipo teknikoak erostearen ondorio direnak.

f) Era berean, ezingo dira sartu eskabidea egiten duen elkartearen ohiko funtzionamenduaren ondorio diren zeharkako gastuak.

8.4. Baremo hauek kontuan izanik kalkulatu da dirulaguntzaren zenbatekoa:

a) Onartutako aurrekontuaren ehuneko 100era arte esleipen-irizpideen arabera 80 puntutik 100era bitartean lortzen dituzten proiektuetarako.

b) Onartutako aurrekontuaren ehuneko 90era arte esleipen-irizpideen arabera 60 puntutik 79ra bitartean lortzen dituzten proiektuetarako.

c) Onartutako aurrekontuaren ehuneko 80era arte esleipen-irizpideen arabera 50 puntutik 59ra bitartean lortzen dituzten proiektuetarako.

8.5. Norgehiagoka baliatuko da dirulaguntzak emateko prozedura gisa. Proiektu edo jarduera bakoitzerako onartutako aurrekontuari lortutako puntuazioa aplikatuz ateratzen dena izango da dirulaguntzaren zenbateko osoa —aurrekontua agortu arte—. Puntuazio-hurrenkeran emango dira dirulaguntzak, puntuaziorik handiena lortu dutenetatik hasita.

8.6. Ebazpen-proposamenean, elkarte esleipendunen zerrendaz gain —diruz lagundutako proiektuak eta emandako diru-kopuruak adieraziko dira bertan—, ordezkari elkarte eskatzaileak —50 puntu edo gehiago lortu dituztenak— zerrendatuko dira, ordenaturik, esleipendunen batek dirulaguntzari uko egingo balio ere. Ordezkoen zerrenda horretako elkarteei dagokienez, proiektuak identifikatuko dira, eta baten batek dirulaguntzari uko eginez gero gehienez lortu ahal izango luketen diru-kopurua adieraziko, inolaz ere ezingo baita izan dirulaguntzari uko egiten dion elkarteari esleitua baino gehiago, ezta deialdian nahikoa zuzkidurarik izan balitz hautatze-aldian, puntuazioa aplikatuz, lortuko zukeena baino gehiago ere.

8.7. Birformulatzea: Balioespen-batzordeak egindako ebazpen-proposamenean onetsitako dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskabidean adierazitakoa baino txikiagoa bada, eskabidea hamar eguneko epean birformulatzeko eskatu ahal izango zaio onuradunari, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzara molda ditzan. Organo instrukzio-egileak eskabidea ontzat ematen duenean, organo eskudunari helaraziko zaio egindako gutzia, dago-kiona ebatz dezan.

8.8. Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarri izango dira entitate onuradunek proiektu berak bideratzeko besterengandik jasotzen dituztenekin. Nolanahi ere, aurkeztutako proiekturako eskatu diren bestelako dirulaguntzak adierazi beharko dira dirulaguntza-eskabidean. Helburu berari erantzuteko beste dirulaguntzarik jasoz gero, ezingo da gainditu diruz lagundutako programa edo jardueraren kostu osoa.

9. Dirulaguntza ordaintzea

Bi zatitan ordainduko da dirulaguntza: ehuneko 80, justifikazioa aurkeztu baino lehen; gainerako ehuneko 20a, jarduera bukatzen delarik, osorik gauzatu dela justifikatu ondoren.

Banku-transferentziaren bitartez ordainduko da dirulaguntza, onuradunak eskabidean horretarako adierazten duen kontu korrontean.

Ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta Udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona edo entitate onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu. Ezin izango da dirulaguntza ordaindu harik eta pertsona edo entitate onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzultzeko prozedura baten ondorioz zordun bada ere.

10. Dirulaguntza justifikatzea

Aurkezteko epea: hiru hilabete, programa edo jarduera bukatzen denetik, edo —hura gauzatu ondoren eman bada— dirulaguntza eman denetik.

Udalaren webgunean —www.vitoria-gasteiz.org— eskura daitezke justifikatzeko formularioak (eranskinak).



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Gasteizko Udalari diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria

Solicitud de Subvención y Ayuda Económica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

informacion@vitoria-gasteiz.org

ESKATZAILEAREN DATUAK - DATOS DEL/LA SOLICITANTE

Izen-abizenak / Enpresaren izena - Nombre y apellidos / Razón social NAN/IFZ/AIZ – IFZ/NIF/NIE

ADMINISTRAZIOAREN AURREKO ORDEZKARIAREN DATUAK - DATOS DEL REPRESENTANTE ANTE LA ADMINISTRACIÓN

Lehen deitura - Primer apellido Bigarren deitura - Segundo apellido Izena / Enpresaren izena – Nombre / Razón Social

NAN/AIZ – DNI/ NIE Posta elektronikoa - Correo electrónico

Helbidea (kalea, ataria, eskailera, solairua eta atea) - Dirección (calle, nº, escalera, piso y letra)

PK - C.P. Herria - Localidad Lurraldea - Provincia Tel. - Tfno.

ESKATZAILEAREN BANKETXEKO DATUAK - DATOS BANCARIOS DE LA PERSONA SOLICITANTE

Finantza-erakundea IBAN F. E. kodea Bulegoa K.Z. Kontu-zenbakia
Entidad financiera Código E.F. Sucursal D.C. Número de cuenta

LAGUNTZA EKONOMIKO EDO DIRU-LAGUNTZA ESKATZEN DU ALOR HONETAN :

Gazteria	<input type="checkbox"/>	Kirola	<input type="checkbox"/>
Berdintasuna	<input type="checkbox"/>	Gizarte Politikak	<input type="checkbox"/>
Garapenean Laguntzea	<input type="checkbox"/>	Herritarren Partaidetza	<input type="checkbox"/>
Euskara	<input type="checkbox"/>	Merkataritza - Ostalaritza	<input type="checkbox"/>
Bizikidetzeta eta aniztasuna	<input type="checkbox"/>	Enpresak	<input type="checkbox"/>
Kultura	<input type="checkbox"/>	Enplegua - Kontratazioa	<input type="checkbox"/>
Hezkuntza	<input type="checkbox"/>	Nekazaritza Eremua	<input type="checkbox"/>

SOLICITA AYUDA ECONÓMICA, SUBVENCIÓN DE:

Juventud	<input type="checkbox"/>	Deporte	<input type="checkbox"/>
Igualdad	<input type="checkbox"/>	Políticas Sociales	<input type="checkbox"/>
Cooperación al desarrollo	<input type="checkbox"/>	Participación Ciudadana	<input type="checkbox"/>
Euskera	<input type="checkbox"/>	Comercio - Hostelería	<input type="checkbox"/>
Convivencia y Diversidad	<input type="checkbox"/>	Empresas	<input type="checkbox"/>
Cultura	<input type="checkbox"/>	Empleo - Contratación	<input type="checkbox"/>
Educación	<input type="checkbox"/>	Zona Rural	<input type="checkbox"/>

DIRU-LAGUNTZEN ILDO HONEN BARRUAN - CORRESPONDIENTEA LA LINEA DE SUBVENCIÓN DE:

ESKATUTAKO DIRU KOPURUA – IMPORTE SOLICITADO

BERE ERANTZUKIZUNPEAN AITORTZEN DU:

Ezagutzen eta onartzen dituela laguntza ekonomikoak eta diru-laguntzak emateko udal programaren barruan aurkeztu nahi duen deialdiaren oinarrietan ezarritako irizpideak, eta bete egingo dituela..

DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD:

Conocer, aceptar y cumplir los criterios fijados en las bases de la convocatoria a la que se presenta dentro del Programa Municipal de Ayudas Económicas y Subvenciones.



Gasteizko Udalari diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria

Solicitud de subvención y ayuda económica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

informacion@vitoria-gasteiz.org

Ordaindu beharreko zergak ordainduta dituela, baita Gizarte Segurantzako Diruzaintzan ere, eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren 13.2. artikulutik eratorritako gainerako inguruabarrak betetzen dituela.

Estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias y con la Tesorería de la Seguridad Social y demás circunstancias derivadas del artículo 13.2 de la Ley general de Subvenciones.

GASTEIZKO UDALARI BAIMENA EMATEN DIO

Konkurrentziatik eratorritako komunikazio ofizialak posta elektronikoz jasotzeko, Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. eta 41. artikuluen arabera.

Alderazi hemen

Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak ordainduak direla egiaztatzen duen ziurtagiria ofizioz eskatzeko.

Alderazi hemen

Gizarte Segurantzaren Diruzaintzari ordaindu beharrekoak ordaindu zaizkiola egiaztatzen duten ziurtagiriak ofizioz eskatzeko.

Alderazi hemen

Baimen horiek **UKATUZ** gero, zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzako Diruzaintzaren beteak dituzela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzu eskaera honekin batera.

Alderazi hemen

AUTORIZA AL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ

Recibir las comunicaciones oficiales por correo electrónico, derivadas de su concurrencia, conforme a la Ley PAC 39/2015, artículos 40 y 41.

Marque aquí

Solicitar de oficio el certificado de estar al corriente de pago en las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral.

Marque aquí

Solicitar de oficio los certificados de estar al corriente de pago con la Tesorería de la Seguridad Social.

Marque aquí

En caso de **DENEGAR** estas autorizaciones, deberá presentar los certificados acreditativos de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias y con la Tesorería de la Seguridad Social junto con esta Solicitud.

Marque aquí

Sinadura / Firma:

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna Responsable del tratamiento	Vitoria-Gasteizko Udala – Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK-CIF-P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak Contacto del Responsable del tratamiento	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Alava 945 161 616 – informacion@vitoria-gasteiz.org – www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak Contacto de la Delegada de Protección de Datos	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak Finalidad del tratamiento	Udal zerbitzuei dagokienez herritarren eskakizunak artatzea, eta udal-eskumeneko prozedurak izapidetzea, 39/2015 legean aurreikusitakoekin bat etortita Atender las solicitudes de la ciudadanía en relación con los distintos servicios municipales, así como la tramitación de los distintos procedimientos de competencia municipal, de acuerdo con lo previsto en la ley 39/2015
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa Legitimación o base jurídica del tratamiento	Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira. Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: El interesado dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos
Hartzailleak Destinatarios	Datu pertsonalik ez zaie lagako hirugarrenei Los datos personales no serán cedidos a terceros
Gordetzeko epea Plazo de conservación	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egingo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklaazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutako aplikatuko zaie datuei Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos. Igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación
Pertsonen eskubideak Derechos de las personas	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezabatuzko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos



www.vitoria-gasteiz.org

CSUB_001

Gasteizko Udalarari diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria
Solicitud de subvención y ayuda económica del Ayto de Vitoria-Gasteiz

DIRU-LAGUNTZA ESKATZEKO ORRIAK – ANEXOS PARA LA SOLICITUD DE SUBVENCIÓN:

- 1. eranskina:** Eskaera – Anexo 1: Solicitud
- 2. eranskina:** Proiektua aurkezteko inprimakia. 2020ko ekitaldia – Anexo 2: Formulario de presentación del proyecto. Ejercicio 2020



www.vitoria-gasteiz.org

CSUB_001

Gasteizko Udalarari diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria
Solicitud de subvención y ayuda económica del Ayto de Vitoria-Gasteiz

2. **ERANSKINA:** PROIEKTUA AURKEZTEKO INPRIMAKIA. *ANEXO 2: FORMULARIO DE PRESENTACIÓN DEL PROYECTO. EJERCICIO 2020*
2020KO EKITALDIA

JARDUERA EDO PROIEKTUAREN IZENBURUA ETA DESKRIPZIOA
DENOMINACIÓN Y DESCRIPCIÓN DE LA ACTIVIDAD O PROYECTO

JUSTIFIKAZIOA: JARDUERA AURRERA ERAMATEKO ABIPUNTUTZAT HARTU DU BEHARRA
JUSTIFICACIÓN: A QUÉ NECESIDAD RESPONDE LA ACTIVIDAD

HELBURUAK – OBJETIVOS



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

CSUB_001

Gasteizko Udalarari diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria
Solicitud de subvención y ayuda económica del Ayto de Vitoria-Gasteiz

METODOLOGIA ETA ANTOLAKUNTZA – METODOLOGÍA Y ORGANIZACIÓN

BIDERAGARRITASUN TEKNIKOA ETA EKONOMIKOA – VIABILIDAD TÉCNICA Y ECONÓMICA

GAUZATZEKO DEN TOKIA – LUGAR DE REALIZACIÓN

EGUTEGIA ETA IRAUPENA – CALENDARIO Y DURACIÓN



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

CSUB_001

Gasteizko Udalarari diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria
Solicitud de subvención y ayuda económica del Ayto de Vitoria-Gasteiz

PROIEKTUA BISTARATZEKO PLANA - PLAN DE VISIBILIZACIÓN DEL PROYECTO (1)

- (1) Proiektuaren komunikazioa eta zabalkundea garatzeko metodologia, bitartekoak eta baliabideak
Metodología, medios y recursos para la comunicación y difusión del proyecto

PROIEKTUAREN BERRITASUNA ETA SORMENA – NOVEDAD Y CREATIVIDAD DEL PROYECTO

JARDUERA EDO PROIEKTUAREN JARRAIPENERAKO ETA EBALUAZIORAKO TRESNAK
INSTRUMENTOS PARA EL SEGUIMIENTO Y LA EVALUACIÓN DE LA ACTIVIDAD O PROYECTO

HARTZAILEEI DAGOZKIEN ALDERDIAK – ASPECTOS RELACIONADOS CON EL PÚBLICO DESTINATARIO

ADINAK - EDADES

PARTE-HARTZAILE GAZTEEN KOPURUA – NÚMERO DE PARTICIPANTES JÓVENES

AHULDADE EGOERAN DAUDENEI ZUZENDUTAKO JARDUERAK
ACTIVIDADES DIRIGIDAS A UN PÚBLICO EN SITUACIÓN DE VULNERABILIDAD



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

CSUB_001

Gasteizko Udalarir diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria
Solicitud de subvención y ayuda económica del Ayto de Vitoria-Gasteiz

BEREZIKI EMAKUMEEN AHALDUNTZERA ZUZENDUTAKO JARDUERAK
ACTIVIDADES DIRIGIDAS ESPECIALMENTE AL EMPODERAMIENTO DE LAS MUJERES

PROIEKTUA SAREAN AURKEZTEN DA, HAINBAT EKARTEAREN ARTEAN
EL PROYECTO SE PRESENTA EN RED, ENTRE VARIAS ASOCIACIONES

EUSKARAREN ERABILERA – USO DEL EUSKERA

EUSKARAZ EGITEA AURRIKUSTEN DIREN JARDUERAK
ACCIONES, ACTIVIDADES QUE SE PREVEEN REALIZAR EN EUSKERA

EUSKARAK ERAKUNDEAREN IRUDIAN ETA ANTOLAKETAN DUEN LEKUA
ESPACIO QUE TIENE EL EUSKERA EN LA IMAGEN Y EN LA ORGANIZACIÓN DE LA ENTIDAD

PROIEKTUAREN AURREKONTUA – PRESUPUESTO DEL PROYECTO

FINANTZAKETA <i>FINANCIA</i>	Gasteizko Udaleko Gazteria Zerbitzuarir eskatutako diru- laguntza <i>Subvención solicitada al Servicio de Juventud del Ayto. de Vitoria-Gasteiz</i>	Erakunde ekarpena <i>Aporte de la asociación solicitante</i>	eskatzailearen	Beste erakunde publikoen edo pribatuen ekarpena, egoki bada <i>Aporte de otros entes pú- blicos o privados, si procede</i>	Jarduera edo proiektuaren kostu osoa <i>Coste total de la actividad o proyecto</i>
PARTIDAK <i>PARTIDAS</i>					
1. Materialak - <i>Materiales</i>	€	€		€	€
2. Ordainsariak – <i>Honorarios (*)</i>	€	€		€	€



www.vitoria-gasteiz.org

CSUB_001

Gasteizko Udalarri diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria
Solicitud de subvención y ayuda económica del Ayto de Vitoria-Gasteiz

3. Bidaia eta egonaldiak <i>Viajes y estancias</i>	€	€	€	€
4. Publizitatea eta zabalkundea <i>Publicidad y difusión</i>	€	€	€	€
5. Itzulpena - <i>Traducción</i>	€	€	€	€
6. Beste (zehaztu) <i>Otras (especificar)</i>	€	€	€	€
Zuzeneko gastuak, GUZTIRA <i>TOTAL Costes Directos</i>	€	€	€	€

(*) Adib.: hizlari bati ordaintzea, jarduera baten dinamizatzaileari, erakusketaren gidariari, etab...
Ej.: pago a quien da una ponencia, dinamiza una actividad, guía una exposición, etc.

DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA (*)

Gasteizen, (e)ko (a)ren (e)an En Vitoria-Gasteiz, a de de
Izenpea – Firma

(*)

Eskabidea sinatu aurretik, irakur ezazu datuen babesari buruzko informazioa dagoen hurrengo orrialdean.

Antes de firmar la solicitud, debe leer la información básica sobre protección de datos que se presenta en la página siguiente.



www.vitoria-gasteiz.org

CSUB_001

Gasteizko Udalarirako diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria

Solicitud de subvención y ayuda económica del Ayto de Vitoria-Gasteiz

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA

INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala - Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK- CIF: P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Alava 945 161 616 - informacion@vitoria-gasteiz.org - www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Udal zerbitzuei dagokienez herritarren eskakizunak artatzea, eta udal-eskumeneko prozedurak izapidetzea, 39/2015 legean aurreikusitakoarekin bat etorrira. <i>Atender las solicitudes de la ciudadanía en relación con los distintos servicios municipales, así como la tramitación de los distintos procedimientos de competencia municipal, de acuerdo con lo previsto en la ley 39/2015.</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	Legearen 21.1 artikulua: Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua. DBAOk 6.1.c) artikulua: Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko. <i>Artículo 21.1 Ley 39/2015: La Administración está obligada a dictar resolución expresa y a notificarla en todos los procedimientos cualquiera que sea su forma de iniciación.</i> <i>Artículo 6.1.c) RGPD: El tratamiento es necesario para el cumplimiento de una obligación legal aplicable al responsable del tratamiento.</i>
Hartzaileak <i>Destinatarios</i>	Datuak hirugarren bati komunikatu dakizkioke –soil-soilik Gasteizko Udalararen eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoetara ere. <i>Los datos podrán ser cedidos a terceras entidades para el cumplimiento de fines directamente relacionados con funciones legítimas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de la entidad cesionaria, así como a las entidades u organismos a los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, ar-txibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei. <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezetzatzeko eskatu, honien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>